

Trantsizio ekosoziala ELAren Negoziatio Kolektiboan



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

Aurrera eramandako plangintza.....	3
Negoiazio Kolektiboa.....	4
Kongresu Konfederala.....	5

ELAk negoziazio kolektiboan trantsizio ekosoziala txertatzen eman ditu azken hilabeteak.

lhaz aurkeztu genuen plangintzan esaten genuen krisi ekologikoak eta trantsizioaren beharrak enpleguan eragina izango duela epe motzera. Horregatik, eta trantsizio ekosozialarekin dugun konpromisoak bultzatuta, enpleguari eta langileei zentralitatea eman diogu.

Krisi ekologikoak ekoizpen, mugikortasun eta kontsumo eredua aldatzea ekarriko du, eta horrek enpleguari ere zuzenean eragingo dio. ELAk, eredu berri hori langile klasearen eta gehiengo sozialaren interesak lehenetsiz eraiki dadila eskatzen du, eta beharrezkotzat jotzen du sindikatuak horretarako borroka egitea.

Enpleguan gertatzen diren aldaketek eragin desberdina izango dute sektoreka, batzuk indartuko dira eta beste batzuk murriztu edo desagertu. Bidezko trantsizio ekosozial bat ezin da egin sektore horietako langileak alde batera utzita. Bidezko irteera eman behar da: enpresaren jarduera eraldatu, beste jarduera batzuetan birkokatu, edota diru-sarrera duinak bermatu.

Beraz, enplegua eta langileak erdigunean jarriko dituen trantsizio ekosozial justu baten alde lan egingo du ELAk.

1. AURRERA ERAMANDAKO PLANGINTZA

Hilabeteetako hausnarketa prozesu baten ondoren, 2024ko ekainean aurkeztu genuen aurrera eramango dugun aldarrikapen taula:

1. Enpresei informazioa eskatzea: berotegi efektuko gas (BEG) emisioak, hondakinak, energia fosilen eta berriztagarrien erabilera eta ur kontsumoa.
2. Hauen egoera hobetzeko planak eskatzea.
3. Langileentzako mugikortasun planak eskatzea.
4. Erosketa arduratsu “berdea” eta lokala eskatzea.
5. Lantokietako jangeletan elikadura burujabetzan aurrerapausuak eskatzea.

Aldarrikapen taula hau lantzen hasiak gara. Informazio eskaerak egiten hasi gara eta helburua urte bukaerarako 250 enpresetan eskaerak sartzea da. Lan honen balorazioa urte bukaeran egingo dugu.

2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

2.1. Negoziazio esparruak

Negoziazio kolektiboari dagokionez, irekita ditugun edo irekitzeaz dauden negoziazio esparru batzuetan, bai sektorialak, bai enpresakoak, trantsiziorako klausulak sartu dira plataformetan. Horretarako langileekin asanbladak egin dira eta klausulak adostu.

Dagoeneko martxan dauden negoziaketa ezberdinetan sartu dira trantsiziorako klausulak, Bizkaiko garbikuntzan eta Gipuzkoako erresidentzietan adibidez. Kolektibitateetako sektorean ere (eskola publikoetako jangeletan) lanketa egiten ari gara etorkizunean izan daitezkeen negoziaketetarako.

2.2. Plataforma orokorra

Bestalde, plataforma orokorrean ere trantsiziorako klausulak onartu dira, besteak beste:

- Informazio eskubidea:
 - Urtero ondorengo ingurumen informazioa eman behar zaie langileen ordezkariari: berotegi efektuko gasen emisioak, hondakinen kudeaketa, kontsumitutako energia fosila eta berriztagarria, eta ur kontsumoa.
- Hobekuntza planak exijitzea hainbat arlotan:
 - Neurgarriak diren helburuekin ondorengo puntuetan hobekuntza neurriak hartu behar ditu enpresak: berotegi efektuko gasen emisioak, hondakinen kudeaketa, kontsumitutako energia fosila eta berriztagarria, eta ur kontsumoa.

- Karbono urratsa murrizteko planak exijitzea:
 - Karbono urratsa murrizteko hobekuntza planak egin beharko dira. Planak jaso beharko ditu diagnostikoa, helburuak, neurriak, eta jarraipen eta hobekuntza plana.
- Mugikortasun planak exijitzea:
 - Planak jaso beharko ditu: diagnostikoa, helburuak, neurriak, eta jarraipen eta hobekuntza plana.
- Ingurumen ordezkariak izendatzea:
 - Ingurumen ordezkaria izendatu da AAI duten enpresetan. Era berean, ingurumen ordezkaria izendatu ahal izango da XXX langile baino gehiago dituzten enpresetan. Ingurumen ordezkariaren betebeharrak hauek dira:
 - Ingurumen arloko araudia eta enpresak ezartzen dituen ingurumen arloko politika eta helburuak betetzen diren gainbegiratzea.
 - AAIren jarraipena, karbono urratsa murrizteko plana edota mugikortasun planaren jarraipena, eta ingurumenaren egoera hobetzeko hartutako beste neurrien jarraipena egingo du.

Enpresak administrazio publikoari emisioei, hondakinen sorrerari, uraren eta energiaren erabilerari eta istripu larriei aurrea hartzeko neurriei buruz eman behar dion dokumentazioaren kopia jasoko du.

3. KONGRESU KONFEDERALA

Bestalde ospatu berri dugun Kongresuan ere trantsizio ekosozialak izan du bere lekua. Hain zuzen Ponentzian hainbat lan ildo onartu dira “trantsizio ekosoziala herritar xumeentzat” atalean:

- Trantsizioa ekosozialaren beharrezkoa da eta iraunkortasun eta justizia irizpideren arabera izan behar da.
- Industrian eta garraioan oinarrituriko ekonomia dugu eta eraldatu egin behar da.
- Trantsizio energetikoa berriztagarrietan oinarritua egon behar da eta energia nuklearra bezalako iturriak baztertu behar dira.
- ELAren trantsizio ekosozialerako proposamenaren oinarriak hauek dira: kontsumo murrizketa, energia sektorearen berrantolaketa, ekonomiaren

birkokapena, garraioaren eraldaketa, oinarritzko zerbitzuen desmerkantilizazioa, eta lana eta aberastasuna banatu.

- Trantsizio ekosozialerako funtsak exijitzen dizkiegu Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuari.
- Eguneroko ekintza sindikalean eskaera zehatzak egingo dira trantsizio ekosozialerantz aurrera egiteko:
 - Enpresei informazio eskaerak egin.
 - Hobekuntza planak exijitu.
 - Mugikortasun planak eskatu.
 - Enpresen jarduera eraldaketak exijituko ditugu, beti ere sektore hauetako langileen bizi baldintza eta ongizatea bermatuko dela ziurtatuz. Hau bermatu ezean ez dago bidezko trantsizio ekosozialik.
 - Jardueren eraldaketetako edo ekoizpen ereduen aldaketak eragiten dien langileei hiru aukera hauetako bat ziurtatu behar zaie:
 - Eraldaketan plantilla osoa eta lan baldintzak mantentzea.
 - Langileak trebatu eta beste enpresa batean birkokatzea.
 - Diru-sarrera nahikoak bermatzea langile guztientzat.
 - Enpresak eraldatzeko prozesuan langileek jabetza eta kontrola bereganatzeko aukerak sor daitezke eta horrek erakunde publikoen laguntza izan behar du.

Federazioetako kongresuak ere udazkenean ospatuko dira eta hauetan ere trantsizio ekosozialaren pisua ikusiko da. Hauek izan dira orain arte egindakoak, eta hurrengo hilabeteetan hauekin eta beste neurri batzuekin jarraituko dugu.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA